

OBRA KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA

Gaia: “OLALDE” ALT4 H.A.I.ren urbanizazio proiektuan sartutako obrak burutzea.

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia da Udalak onartutako proiektuan jasotako obrak burutzea: Oiartzungo “OLALDE” ALT-4 H.A.I.ren urbanizazio proiektua. Kontratu hau espedientean dagoen dokumentazio teknikoarekin adostasunean burutuko da, haxe kontratu izaera daukalarik.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

Kontratuaren gaiaren kodea CPV nomenklaturaren arabera: 452100000.

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea 30 hilabetekoa da zuinketa egiaztapen akta izenpetu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lizitatuzaileek epe hori hobetu dezakete.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 2.850.351,88 Eurokoa da, gehi %18ko BEZari dagokion 513.063,33 Euro, guztira 3.363.415,21 Euro. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete beraien proposamenetan. Beti ere, BEZari dagokion kopurua bereizita jaso beharko da.

Prezioak barne hartzen ditu kontratuari dagozkion Segurtasun eta Osasuneko, Kalitate Kontrolako eta Hondakinen Kudeaketaren Kontrolako Planak.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lehiatzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio proposamenean jasotako beherako portzentaia kenduta.

4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Bestaldekik, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. NOLA ORDAINDU

Burututako obrak Zuzendari fakultatiboak egindako aldizkako ziurtagiri bidez ordainduko dira ziurtagiriak egin eta hurrengo berrogeitamar eguneko epean, SPKLaren 200. artikularekin adostasunean, bere Zortzigarren Xedapen Iragankorarekin lotuta.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira esleipena egin eta urtebete pasa ondoren, zenbatekoaren %20a ordainduta badago. Berraztertzea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 77 eta 82 bitarteko artikuluekin eta Herri Administrazioiko Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 104 eta 106 bitarteko artikuluekin bat egingo da.

Berraztertzean Gipuzkoako Lurralde Historikoko KPlaren urtez urteko igoeraren %85a aplikatuko da.

7. BERMEAK

a) Behin-behineko Bermea. - Lehiatzaileek 85.510,56 Euroko behin behineko bermea jarri beharko dute lizitazioan parte hartzeko, kontratu prezioaren %3ari dagokiona, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 91.3. artikuluan ezarritako moduetako baten bidez. Esku-dirutan ordaindu nahi izanez gero Kutxako 2101 0060 00 00000 89367 kontu-zenbakian sartu beharko da.

Behin behineko bermeak esleipena egin eta gero itzuliko dira.

Lehiatzaile guztien proposamenak kontratua esleitu arte mantenduko direla eta esleipendunaren proposamena kontratua formalizatu arte mantenduko dela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren

batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo behin betiko bermerik jartzen ez badu lehiatzaileak, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

b) Behin betiko Bermea.- Proposamenik onuragarriena aurkeztu duen lehiatzaileak esleipen zenbatekoaren % 5eko behin betiko bermea eman behar du, BEZ gabe, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 10 egun baliioduneko epean. Bermea SPK Lan ezarritako moduetako baten bidez jarriko da. Esku-dirutan ordaindu nahi izanez gero Kutxako 2101 0060 00 00000 89367 kontu-zenbakian sartu beharko da. Kontratistak bere erruagatik betekizun hau ez badu betetzen ez da bere aldeko esleipenik egingo, 135.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Berme honen bitartez honako alderdi hauek bermatuko dira: 196 artikuluekin adostasunean kontratatari jartzen zaizkion zigorrak; kontratuan jasotzen diren eginkizunak egoki egitea; Administrazioari sortutako kalteak, kontratatari bere betebeharrak berandu betetzeagatik Administrazioari eragindako gastuak; kontratua egikaritzean edo kontratua ez betetzeagatik eragindako Administrazioari eragindako kalteak, kontratua etetea egoki ez denean; kontratua suntsiarazten denean agindu daitekeen inkautazioa, kontratuan edo Legean ezarritakoaren arabera.

Baldin eta Administrazioa bermeaz baliatzen bada berehala osatu beharko da eta borondatez hala egiten ez bada horretarako emandako epean hurrengo ziurtagiritik kenduko da.

Berme epea amaitzen denean esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Zuinketa egiaztapen akta izenpetzearekin batera hasiko da obra kontratuaren burutzapena, kontratuaren formalizaziotik hilabete bateko epean.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoak eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Herri Administrazioen Kontratuak Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Esleipendunak Eraikuntzako Arrisku Orotarako aseguruak kontratatu beharko du esleipen zenbateko osoagatik, obra burutzen den bitartean indarrean egon behar duena. Kontratu aldatuko balitz eta aldaketak kontratuaren prezioa aldatuko balu bermatutako kapitala neurri berdinean aldatu beharko du esleipendunak.

9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lan arloko, Gizarte Segurantzarekiko eta laneko segurtasun eta higiearen arloko indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. AZPIKONTRATAZIOA

Azpikontratazioari dagokionez, SPKLaren 210 eta 211 artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

Esleipendunak obraren zatiren bat azpikontratatu nahi badu Administrazioari jakinarazi beharko dio aurretik eta idatziz. Kasu horretan azpikontratatu nahi den zatia zehaztu beharko du eta azpikontratataren nortasuna eta obra egiteko duen gaitasuna egiaztatu. Azpikontratatuako enpresa zati hori egiteko klasifikazioa izatekotan, kontratistak ez du bere gaitasuna egiaztatu beharko.

Esleipendunak ezingo du esleipen prezioaren %50a baino gehiago suposatzen duen obra zatia azpikontratatu.

11. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

Esleipendunak Erantzukizun Zibileko Aseguruak kontratatu beharko du 600.000 Euroko gutxieneko kapitalarekin, non Oiarzungo Udala barne hartuko da obraren sustatzaile bezala.

12. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta Administrazioak kontratua aldatzea izango du ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 220.e) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan proiektuan jaso ez diren edo funtsean ezaugarri ezberdinak dituzten obra-unitate berriak sartu behar badira, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Esleipendunak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

13. OBRA ZUZENDARIA ETA OBRA ORDEZKARIA

Kontratazio organoak izendatzen duen obra Zuzendaria egikaritze zuzena eman dadin beharrezkoak diren zuzendaritza, ikuskatze, egiaztapen eta zaintza lanak egingo ditu.

Obra Zuzendariak kontratazio organoak izendatzen duen langileen laguntza izango du.

Kontratatzen obra Ordezkaria antzeko obretan egiaztatze moduko esperientzia duen tituludun teknikaria izan behar du.

Honen inguruan Baldintza Tekniko Berezien Pleguaren I.go Kapituluko 2.1 eta 2.1 puntuetan ezartzen dena aplikatuko da.

14. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta gehienez hilabete bat pasa baino lehen obren harreraren egintza formal eta positiboa egingo da, dagokion akta eginez, SPKLaren 218. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Harrera egin eta hurrengo hiru hilabetetan kontratazio organoak azkeneko obra ziurtagiria onartuko du eta kontratatari ordainduko dio kontratuaren likidazioaren kontura.

Gainera, bi urteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du, harreratik hamabost urteko epean. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

15. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

Eskaintzen den baliabide material edo langileekin kaudimena osatzeko betekizuna betetzen ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

16. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 220. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

17. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio: a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz

18. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA

Obrak hasi aurretik eta obrek dirauten bitartean jartzen diren seinaleak, obra-oharrak eta bestelako zeinahi iragarki edo idazkun, bai behin-behineko edo behin betiko, euskaraz jarriko dira edo EAEko bi hizkuntza ofizialetan, eta bi hizkuntzetan jartzen badira euskarazko testua erdarazkoa baino handiagoa izango da.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

19. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena jardunbide ireki bidez egingo da SPKLaren 141. artikulutik 145. artikulura ezarritakoari jarraituz.

Kontratuaren esleipena egiteko honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

	KONTZEPTUA	DESKRIBAPENA	PTK
1	PREZIOA	Eskaintzak behera egokitu daitezke, %20koa izanik gehienezko beherapena, 2 puntu jasoz aplikatutako %1eko beherapen bakoitzeko (%20tik gorako beherapena aurkezteak eskaintzaren baliogabetzea ekarriko du).	40
2	BURUTZAPEN EPEA	Lanen burutzapen epea arrazoituta gutxitu daiteke, 5 hilabete gehienez, egokitutako hilabete bakoitzeko 2 puntu jasoz.	10
3	URBANIZAZIO OBRA BEBESTUTAKO ETXEBIZITZEN ERAINKUNTZAREKIN KOORDINAZIOA	Urbanizazio obren burutzapena etxebizitzaren erainkuntzarekin koordinatzeko gaitasuna objetiboki azaldu, egiaztatu eta bermatuko du lizitatuzaileak, berme eta zalutasun handienaz.	35
4	HOBKUNTZAK	Obren burutzapen kalitatearen onerako den edozein hobekuntza. Obre burutzapen kostua murrizten duten kopuru ekonomikodun hobekuntzak ez dira onartuko.	5
5	PERTSONALA ETA EKIPOAK	ORGANIGRAMA	3
		OBRARI ASIGNATUTAKO PERTSONALA	2
		OBRARI ASIGNATUTAKO MAKINARIA ETA BALIABIDEAK	1
6	OBRAREN AZTERKETA	Lizitatuzaileak obraren garapenaren inguruko kontu ezberdinen inguruan soluzioak aztertu eta proposatuko ditu.	4
		Irigarritasuna	1
		Ingurunearen bidetasunean eragina	1

	Hartune eta azpiegiturak	1	
	Etxola eta ekipoen kokapena	1	

20. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak hurrengo baldintzaren e) eta f) puntuetan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoen beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

21. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Oiartzungo Udalean, Done Eztebe plaza 1, 20180 OIARTZUN.

ORDUAK: 08:00-14:00.

EPEA: Egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, euskeraz edo erderaz, 26 egun naturaleko epean, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoko kontratatuzailearen profilean argitaratu beharko da, honako webgunean eskuratu ahal izango dena: www.oiartzun.org.

Baldintza-agiriak eta horien dokumentazio osagarria eskatzen duten eskaintzaileei bidaliko zaizkie, eskaera hori jaso eta sei eguneko epean, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

Baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ondoko webgunean eskuratu ahal izango da: www.oiartzun.org.

Eskaintzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria emango da, gutxienez, proposamenak hartzeko data iraungi baino sei egun lehenago, beti

ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 142.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde zurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epetik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Lehiatzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "OIARTZUNGO "OLALDE" ALT-4 H.A.I.ren URBANIZAZIO OBREN JARDUNBIDE IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA":

- 1) "A" KARTAZALA. KONTRATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.
- 2) "B" KARTAZALA. "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK.
- 3) "C" KARTAZALA. BALORAZIO IRITZI BATEN GAI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Hiru kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

1.- "A" KARTAZALA: Kartazala honen azpiztitulua hau izango da: "KONTRATTAZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskitura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskitura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Atzerriko enpresariak beren gaitasuna enpresak egoitza duen lurraldean datzan Misio Diplomatiko edo Bulego Kotsularren agiriaren bidez frogatu beharko dute, eta bere jatorrizko

Estatuak Administrazioaren kontratazioan enpresa espainiarrak onartzen dituen txostena, baldin eta Komertzio Munduko Erakundearen Kontratazio Publikorako Akordioan parte ez bada.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitortpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztatutakoak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lehiatzaileak hurrengo Talde, Azpitalde eta Kategoriatan sailkatuta daudela egiaztatu behar dute:

A TALDEA	01 AZPITALDEA	F KATEGORIA
C TALDEA	02 AZPITALDEA	F KATEGORIA
E TALDEA	01 AZPITALDEA	E KATEGORIA
G TALDEA	03 AZPITALDEA	F KATEGORIA
G TALDEA	04 AZPITALDEA	F KATEGORIA
I TALDEA	01 AZPITALDEA	E KATEGORIA
K TALDEA	01 AZPITALDEA	E KATEGORIA

Enpresa klasifikazioaren zain balego, klasifikazio hori eskatu duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, baina, beti ere, klasifikazioa lortu duela egiaztatu beharko du akatsak zuzendu edo hutsunak betetzeko emandako epean.

Europako Erkidegokoak diren eta espainiarrak ez diren enpresek, nahikoa izango dute beren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzeke SPKLaren 64. eta 65. artikuluetan ezarritakoaren arabera ziurtatzea, eta 73. artikuluan aipatzen den inskribapena aurkeztea, hau da, Europar Batasuneko estatuen kontratatzeke baimendutako enpresari zerranda ofizialetan inskribatua dagoen agiria aurkeztea.

f) Kontratu honen ezaugarriak aintzat hartuta, klasifikazioaz gain kaudimen tekniko eta profesionala hurrengo bitartez egiaztatu beharko da:

1.- Azken bost urteetan egindako obren adierazpena, obra garrantzitsuenen kasuan egikaritze ona egiaztatzen duten ziurtagiriek bat; ziurtagiri horiek zenbatekoa, datak eta egikaritze lekua adieraziko dute eta profesioa arautzen duten xedapenekin bat egin zirela eta amaiera egokia izan zutela adieraziko dute.

2.- Obrak egikaritzeko zenbat tekniko eta unitate tekniko izango dituzten deklarazioa, enpresan integratuak dauden edo egon ez arren, eta bereziki kalitate kontrolaren arduradunak, datu horiek egiaztatzen dituzten agiriek.

3.- Obran erabiliko den makinaria, materiala eta talde teknikoaren adierazpena, dagozkien egiaztatutakoak bat.

4.- Obrarako azpikontratatuak dituen enpresen zerrenda.

g) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldekik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

AEBa eratuko duten enpresa bakoitzak egiaztatu beharko du bere gaitasuna eta kaudimena, eta bakoitzarekiko egiaztatutako ezaugarriak batu egingo dira AEBaren kaudimena zein den zehazteko.

h) Atzerriko enpresak badira, espainiar Epaitegi edo Auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

i) Behin-behineko bermea edo ezarri izanaren agiria.

j) Jakinarazpenak egiteko helbide bat.

k) Kartazalaren edukia, zenbakiz adierazita.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzailearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Behin betiko esleipena egin eta urte bateko epean lizitatuzaileek ez badute aurkeztutako dokumentazioa itzultzea eskatzen, suntsitu egingo du Administrazioak.

2.- **“B” KARTAZALA:** Kartazal honek hurrengo azpiztitulua izango du: “PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK” eta hurrengo jaso beharko da bertan:

a) Honako eredu honen arabera proposamen ekonomikoa:

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea, NAN,, Telefonoa

Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak

Helbidea
Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa

..... kontratatzeko asmozk dei egindako lehiaketaren berri izan dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, €, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)koaren(a)

Izenpea

b) Agiri honen 19. baldintzan zehaztutako esleipen-irizpideetatik formula baten bidez baloratu behar direnak egiaztatzen dituztenak, alegia: Prezioa eta Epea.

3.- "C" KARTAZALA: Kartazala honen azpitulua hurrengo izango da: "BALORAZIO IRITZI BATEN GAI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK" 19. baldintzan zehaztutako esleipen-irizpideetatik balorazio iritzi baten gai izan behar duten irizpideak egiaztatzen dituzten agiriak.; hain zuzen ere, urbanizazio obra babestutako etxebizitzaren eraikuntzarekin koordinazioa, hobekuntzak, pertsonala eta ekipoak eta obraren azterketa.

22. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Oiarzungo Udaletxeko Kontratazio Mahai iraunkorrek epe eta modu egokian "A" kartazala sailkatu egingo du. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Illo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek bost egun naturaleko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren

22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak sailkatuak, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 21. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berriaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

Aurkeztutako proposamenak ("B" eta "C" kartazalak) irekitzeko Mahaiak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 83. artikuluan eta hurrengoetan eta 30/2007 Legea partzialki garatzen duen 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN kartazala ("B" KARTAZALA) irekitzea eta balioestea **BALORAZIO IRIZPIDE BATEN GAI IZAN BEHAR DUTENENA** ("C" KARTAZALA) eta gero egingo da.

"C" KARTAZALA jendeurrean irekiko da dokumentazio administratiboa ("A" KARTAZALA) ireki eta hurrengo zazpi egunetako epean gehienez. Horretarako lekua, eguna eta ordua kontratatzailearen profilean agertuko dira. Ondoren, aurkeztutako dokumentazioa zerbitzu teknikoei emango zaie dagokion balorazioa egin dezaten.

Aurrekoa egin eta gero onartutako proposamenen "B" kartazala irekiko da jendeurrean, kontratatzailearen profilean argitaratuko den leku, egun eta orduan. Egintza horretan emango da jakitera balorazio iritzi baten gai izan diren irizpideen balioestea.

Hurrengo egunetan, teknikariek proposamenak balioetsi, ebaluatu eta sailkatzeari ekingo diote, eta Kontratazio Mahaiari txostena emango diote esleipen-proposamena aurkeztuko diezaion esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

23. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Esleipena bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Kontratazio-organoak hoberenetik behera klasifikatuko ditu aurkeztutako proposamenak. Klasifikazioa pleguetan zehaztutako esleipen irizpideen arabera egingo du.

Errekerimendua egingo zaio proposamenik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, hurrengoak egin ditzan:

- a) Egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.
- c) Behin betiko bermea jarri eta jarri duela egiaztatu.
- d) Eskatutako aseguruak dituela egiaztatzea.

Esleipena bost egun balioduneko epean egin beharko da aipatutako dokumentazioa jasotzen denetik. Aitzitik, dagokion epean beteko ez balitz, lizitatzailerak eskaintza erretiratzen duela ulertuko da, eta beraz, aipatu dokumentazioa eskatuko zaio klasifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoen lizitatzailari.

SPKLaren 139.2. artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, lizitatzailari eragindako gastuen konpentsazioa ezarriko ditu Administrazioak, aurretik entzunaldia eginez eta gastuak egiaztatuz.

Kaudimen teknika egiaztatzerakoan %2ko ezintasuna baino gehiago duten langileak dituela ziurtatzen duten lizitatzailari lehentasuna emango zaie esleipena egiterakoan, beti ere, beraien proposamenak esleipen-irizpideen arabera onuragarriena direnak berdintzen badituzte. Proposamenik onuragarrienean berdinketa lortu duten lizitatzailerak %2ko ezintasuna baino gehiago duten langileak dituztela ziurtatu badute, ezintasun hori duten langile finko gehiago dituenaren alde egingo da esleipena.

Esleipena esleipendunari jakinaraziko zaio, eta honek, jakinarazpena jaso eta hamar egun balioduneko epean ondorengoak bete beharko ditu:

- a) Argitalpen ofizialaren gastuak ordaindu, egonez gero, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakarrean.
- b) Aldi baterako elkarte eratzeko eskriturak, hala dagokionean.
- c) Administrazioaren aurrean azaldu kontratua formalizatzeko.

Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du. Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

Era berean, kontratuaren formalizaziotik hamabost eguneko epean hurrengoak aurkeztu beharko ditu esleipendunak:

- Lanen Programa.
- Segurtasun eta Osasun Plana.

Zuinketaren egiaztapena jakinarazpena jaso eta gehienez ere hilabete bateko epean egin beharko da.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

24. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua eta kontratu agiriekin administrazio-mailakoak izango dira eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea, SKPLa partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra (urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretua) eta herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko arauak aplikatuko dira.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

25. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organiko eta hori garatzen duten arauekin lotuta.

26. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren egikaritzan sor daitezkeen kontuak kontratazio organoak ebatziko ditu. Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak tartekaritza bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Oiartzunen, 2011eko martxoaren 21ean.